



111 Akademiako akademiakideek hautatu eta izendatuta, Mikel Peruarenak idatzi eta Susa argitaletxeak plazaratutako "Su zelaia" eleberriak jasoko du 2014ko 111 Akademiaren Saria

Andoaingo mugak eta ondarea ezagutzeko ibilbideak, igandean



Asteburu honetan mendi ibilaldiak igandean eta bertso afaria larunbat iluntzean.

Ibilaldi bikoitza antolatu dute iganderako. Batetik, Andoaingo mugak igaroko dituen ibilbide luzea (41.84 km). 07:00etan abiatuko dira Euskalduna mendi elkartetik.

Bestetik, 09:00etan Belkoaingo karobi, dolmen, telegra-



Bertso desafioa larunbat honetan Andoaingo, Amasako eta Zizurkilgo bertsolariekin.

fo eta karlisten garaiko gotorlekuak ezagutzeko ibilbide gidatua irtengo da, toki beretik. Burdina taldeko kideek hainbat azalpen emango dute ibilaldian zehar.

BERTSO AFARIA

Bezperan, larunbat honetan, bertso afaria egingo dute Basteroko ekitaldi aretoan Unai Mendizabal, Joseba Otaegi, Jon Eskudero, Ion Beloki,

Oihana Iguaran eta Beñat Iguaranen parte hartzearekin. Azken txartelak ostirala arte egongo dira salgai Atarian, eta azken unean erosi nahi duenak Basterora jo beharko du arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

DATORREN ASTEBURUA

Mendeurreneko ekitaldiekin jarraituz, apirilaren 25ean Gartxot Arregik postal tailerra gidatuko du, goizeko eta arratsaldeko saioetan. Izen-ematea Basteron amaituko da apirilaren 23an, ostegunarekin.

Igandean, aldiz, Andoaingo musika eskolako udal banda eta haur eta gazteen abesbatzaren kantuak Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emankizunekin tartekatuko dituzte. Bi saio eskainiko dituzte eta bietarako sarrerak dagoneko agortu dira.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Josu Garmendia gogoan

Samin handia eragiteaz gain, hutsune galanta utzi du Urnietan Josu Garmendiaren heriotzak. Politikagintzan, kirolean eta herrigintzan eragile nekaezina zena apirilaren 7an zendu zen.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Udako oporraldia nerabeentzat

Udan oporraldia igarotzeko deialdia 14 eta 17 urte arteko koei zuzenduta dago eta horri buruzko informazioa eskuragarri dago Andoaingo Gazte informazio bulegoan.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Santa Krutz jaien egitaraua

Egitarau osoa erabakita dago, koadrilen eguneko bazkarirako txartelak erosteko epea igande honetan amaituko da.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Andoaingo Gudua

Soldaduak behar dituztela eta, deialdia luzatu dute.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

EH Bilduk hautagaiak aurkeztuko ditu Andoainen eta Urnietan, hilaren 21ean

Ixiar Martiarena izango da alkategaia Urnietan, eta Ana Carrere egungo alkatea Andoainen. Hautagaitzak apirilaren 21ean aurkeztuko dituzte, jendaurrean.

Andoainen Zumea plazan egingo dute Udal hauteskundeetarako zerrendaren aurkezpena, datorren asteartean arratsaldeko 19:00etan hasita. Egun agintean dauden hainbat kideekin batera, hautagai berriak aurkeztuko dituzte.

Urnietan Lekaion egingo dute aurkezpena, egun berean, arratsaldeko 19:30ean hasita. Ekitaldi horretan emango dute aditzera nortzuk diren hautagaiak. Denen buru Ixiar Martiarena izango da, azken agintaldian zinegotzi lanetan aritu dena. An-

doainen eta Urnietan hautagaiak osatuz doaz. EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bilduko alkategaiak ezagunak dira. Laster jaingo da Irabazi edo antzeko hautes zerrendarik aurkeztuko ote den bi herrietan. Apirilaren 20ra bitarteko epea dute.

Andoaingarrak 400 APIRILA			
18 LARUNBATA 20:30 Basteroko ekitaldi aretoan Bertso afaria Mendeurrena kantari	19 IGANDEA 09:00 Euskaldunako egoitzatik Mendi irteera Gure historiaren lau lekuko Belkoainen	25 LARUNBATA 10:30-13:30 18:00-20:30 Basteroko ekitaldi aretoan Postal tailerra 400 urte: Mundura zabaltzen	26 IGANDEA Bi saio 17:00 / 19:00 Basteron, 7C Ikuskizuna 400 Irri banda

Sarrerak agortuta

GARMENDIAREN HERIOTZA GALERA HANDIA IZAN DA KIROL ETA KULTUR MAILAKO ERAGILEENTZAT

Josu Garmendia, itzal luzeko urnietarra

Josu Garmendia Arrieta urnietarra aurreko astean ezustean zendu zen, familiarekin Italian oporraldian zela. EAJ-PNVko alderdiko buru, UKE elkarteko kide eta herriaren alde lan asko egindako gi-

zona zen. Herrian bere galerak oihartzun handia izan du, eta horren isla astelehenean eskaini zioten azken agurra. Bere inguruko guztiek lanerako eta laguntzeko prestutasuna nabarmendu dute.

EAJ-PNV alderdian urte dezente egin zen, eta bere alderdikideak albiste sinetsi ezinik dabiltzala aitortu du **Maribel Vaquerok**. 1993 urteaz geroztik, bidelagun izan du udal-letxean eta bertako jarduna berarekin ikasi zuela dio: “Udaletxe batean sartzea ez da erraza, eta berak asko lagundu zidan. Esaten da politikan ez direla lagunak izaten, baina ez da horrela; oso lagun izan baitut”.

Maribelek dioenez, Josuk lan asko egin izan du, eta isilean gainera: “Ez zuen inoiz protagonismoa bilatzen. Bigarren ilaran egoten zen pertsona hori zen bera. Xirimiria bezalakoa zen, hor zegoena baina antzematen ez zena. Bere lana nabaria zen eta babes handia ematen zuen”, adierazi du.

Maribelek dohain bat aitortu dio: entzuteko gaitasuna. Beste ikuspuntu bat omen zuen erabakiak hartzerakoan: behar adinako denbora hartzen zuena eta gauzak behin baino gehiagotan pentsatzen zituena. “Une zailetan hor egoten zen. Politikan eta herrigintzan beharrezkoa izaten da pazientzia, eta berak bazuen”.

Gainerako ordezkari politikoek ere saminarekin bat egin dute. **Mikel Izagirre** alkate ohia- rentzat, gizon ona eta prestua zen; Urnietan pertsona garrantzitsua. “Nahiz eta gero adostasunetara ez iritsi, solaskide ona zen. Familiari nire doluminak eman nahiko nizkiego”.

Doluminarekin bat egin dute ordezkari-za duten beste bi alderdiek ere. **EH Bilduk** animoak eman nahi dizkie gertukoiei: “Ustekabea harrapatu gaitu berri txar honek eta ingurukoiei animoak luzatu nahi dizkiegu”. **PSE-EEk** ere atsekabea erakutsi nahi izan die etxeko, lagun eta EAJ-PNV alderdiko kideei, “une zail hauetan babesa eman ez eta zuen minera batuz”.

HERRIGINTZAN AKTIBOA

Josuren inguruko guztiek he-



Josu Garmendia 2014ko otsailean EAJ-PNV alderdiak egin zuen agerraldian, Mikel Pagola eta Maribel Vaquerorekin batera. Haren heriotzak samina eragin du herritar askoren artean.

rrriaren alde lan asko egin duela azpimarratu dute: “Gauzak antolatze-ko sena zuen. Herri- tar bezala lan asko egin du, be- har zenean bere laguntza es-

kaintzeko prest azaltzen zen”, dio **Alazne Manero** Aurrera Gu- re Ametsa dantza taldeko ki- deak.

Dantza taldean ere lagun-

tzaile bezala ibili zen azken bizpahiru urtetan. Alaznek dioenez, oso gertuko gizona zen: “entseguak egiten geni- tuen bitartean bertan izaten zen, denekin egonez”.

Beti zerbait egiteko prest egoten zen horietakoa zen. Horregatik galera handia izan dela dio dantza taldeko ki- deak: “benetan uste dut pertsona aktibo bat galdu dugula Urnie- tan; eta hori nabaritu-ko dugu”.

Dena den, aurrera egiteko unea dela eta dolu fase honen ostean, zaila izan arren, mar- tx hartu beharra dagoela dio. “Ez da erraza izango bere ka- risma bilatzea, baina aurrera egingo dugu”. Egin duen guz- tiagatik eta bere izaeragatik, eskerrak adierazi nahi dizkiote Josuri.

URNIETA KIROL ELKARTEAREN SORTZAILEETAKOA

“Oso triste eta espero gabe” hartu dute albiste Urnietako Kirol elkartearen ere. **Maite Ota- ñok** adierazi duenez, pozik daude “bere momentu on bate- an eta lasaitasunean” joan de- lako; baina bestetik, “inpoten- tzia” sentitzen dute berarekin lotura zuten gauza asko zintzi- lik geratu zaizkielako.

“Pertsona aktibo bat gal- du dugu Urnietan; eta hori nabaritu-ko dugu”

Maite Otaño, UKE

Josu Garmendia UKEren le- hen pausoetatik elkartearen parte izan da. 1983an sortzai- leetako bat izan zen eta zuzen- daritzako diruzain ibili da orain arte: “Josu Garmendia eta bera bezalako jenderik ga- be, UKE ez litzateke existitu- ko”, adierazi du Maitek. Zu- zendaritzan aldaketa handiak egon dira, gora-behera asko izan dira, baina bera beti hor egon da.

Gizon lasaia eta langile be- zala gogoratzen du, ezkutuan lan handia egin ohi zuena. Aurpegia ematea gustatzen ez zitzaion arren, atzetik denekin hitz egiten zuena, guztiaz ar- duratzen zena eta beti lagun- tzeko prest zegoena. Herrian egon diren jarduera askoren lehen urratsetan han izan zen: irteerak antolatzen, dantza tal- dean, UKE baino lehenagoko pilota txapelketak antola- tzen... “Beti herriarengan pen- tsatzen zuen. Inoiz ez zuen klub onena izatea, edota berta- tik izar batzuk irtetea bilatzen; herrian kirola egin nahi zuten gazteei aukera hori ematea nahi zuen, eta horregatik bo- rrokatzen zuen”.

Josuk askotan esan ohi zuen esaldi bat bizitzako esparru ez- berdinetan aplikatzeko filoso- fiatzat hartu du Maitek: “Gau- zak ondo dauden bitartean, denak gaude. Gauzak gaizki joaten hasten diren unean, gu geratzen gara eta egin beharra dago”. Filosofia hori baliagarri izan zaio Maite-ri lanean, elkar- tean eta bizitzako beste hain- bat esparrutan ere. Orain, bere postua beste norbaitek hartu beharko du. Haren ustean, or- dea, bere hutsunea pertsona bakar batek betetzea oso zaila izango da.

JELTZALEEN AGURRA

“Apirilaren 7an, joan zara Josu. Urnietatik urrun. He- rria maitatzen zenuen eta herriak maitatzen zintuen.

Azken 25 urte luze haue- tan, Josu eta Urnietako Eus- ko Alderdi Jeltzalea lotuta egon gara. Herrigintzan egindako aportazioa eta zure inplikazioa ezin ukanak ditu- gu. Zinegotzi lehendabizi, Uri batzarreko kide eta az- ken urteetan Uri batzarreko Lehendakari izan baitzara.

Lana modu apal batean, ixilik, atzetik egitea gustatu izan zaion horietakoa izan zara. Nabarmendu orde- z, egitea nahiago izan duzuna. Emaztearekin, merezitako opor egun batzuk pasatzen ari zinela etorri da zorigai- tza. Orain 40 urte bihotza sendotzeko ezarri zizuten balbulak huts egin eta be- rarekin eraman zaitu Josu.

Bihotza sendoa, burua argia, itxura lasaia, eskuzabala, orekatua...

Agurtzeko aukerarik ez dugu izan. Zaila gertatzen zaigu zu gabeko etorkizun batetan pentsatzea, baina zure lekukoa norbaitek har- tu behar du.

Ez da lan samurra izango baina zure ohorez Josu aha- leginak egingo ditugu zuk egindako lanak jarraipena izan dezan, eredu eta ispilu izan baitzara. Zure herria- ren, gure herriaren alde la- nean.

Josu, fisikoki ez zaude gu- rekin, baina zauden lekutik gurekin sentituko zaitugu, zure emazte seme alabekin eta familiarekin batera. Az- ken finean herriarekin.

Agur lagun, agur alderdi- kide”.

Urnietako EAJ-PNV



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Ametsa egi bihurtzen (II)

Seminarioan kurtso bat egin nuen eta ohi diren kurtsoaren bukaerako oporrak ere bai; han Eguberrietan ohi dira. Ni jesuiten elkartearen bizi nintzen eta tartean lau jesuita euskaldun; eta tartean batek anaia zeukan Buenos Airesen, eta gure solasaldietan aipatu genuen bisitatzera joatea, hura kapitalera eta ni lehengusuetara, Panpara. Ni, diruz eskas nenenbilen, baina kontuak egin eta ostatuaren gastuak baino merkeago zitzaigun egun guztia autobusean eginda.

Erabaki genuen bidaia egitea. Alderik alde zazpi nazio igaro behar genituen, Andeetako mendikatea pasa, eta hori dena lurrez, ia inork ez du egiten hori dena lurrez, gehienek abioia erabiltzen dute. Bi motxila hartu, ibili beharreko denak sartu, karta bat idatzi bagindoazela adieraziz eta atera ginen. Aurreneko parte Kolonbiatik Kuzkora, zeren eta gure jesuita batek, donostiarra bera, anaia zeukan Kuzko inguruan eta Eguberrietako hau bisitatzera joan ginen eta handik aurrera Anjel eta biok. Ni kartak idazten oso motza izan naiz: nire motibaziorik handiena Kontxita zen eta baita neure aita ere, badaikit oso gogoko zuela nik bidaia hura egitea...; bada erabaki nuen egunero karta bat idaztea nire joan-etorri guztiak azalduz, eta aitak hartu eta berehala bidaltzen zien gure tarteriko denei.

Eta horrela egin nuen eta badakit gehiago enteratu zirela nola bizi ziren Ameriketako senideak, eurek bizitza osoan egindako karta guztien bitartez baino.

Lehendabiziko Pastora heldu ginen. Hegoaldera Kolonbiako azkeneko probintzia da. Ilusioa genuen hona iristeko bada Santa Cruz apaiz gerrilaria, Hernialden apaiz egona, hil edo biziko estualdi batetik onik atera eta misioetara joatea agindu zion bere buruari eta, hain zuzen ere, Pastoko elizbarrutira bildu zen. Hemen bi parroki eraiki zituen eta hemen amaitu zuen bizitza. Beraz, lur sakratua guretzat.

Aduanara iritsi ginen eta Ekuadorrera heldu. Gure bidaia honela ziren: iluntzean hartzen genuen autobusa, gaua honela bertan pasatzen genuen; hurrengo egunean autobusean segi, eta segidan gauarekin uztartu eta segidako eguna deskantsu egiteko, eta iluntzean berriro planari jarraitzeko. Gauez, noizbehinka, ohean egiten genuen lo, jesuiten etxeetan. Beraz, inoiz beste lekuren batean ez genuen lorik egin; eta honek denak bi hilabete eta erdi iraun zuen. Kito da kapitela. Munduaren erdia seinalatzen duen arrastoa ondo seinalatuta dago. Hanka bat erdiz gora aldean jarri eta bestea behera aldean eta argazki bat atera eta abiatu ginen behera aldera. Hemen pasa ginen Kiosko misio lurretatik eta Peruko atarira heldu.

Denda Berriren irteera

Maiatzaren lehenengo aste-buru luzean irteera antolatu du Denda Berri elkarteak. Maiatzaren 1etik 3ra Asturias aldera joango dira, besteak beste, hiriburu eta paraje

ederrak bisitatzuz: Xixon, Oviedo, Cudillero, Lastres, Covadonga eta Cangas de Onís. Izena emateko epea ostiral honetan amaitzen da. Informazioa elkartearen bertan.

Ate irekien jardunaldia Salesiar ikastetxean

Apirilaren 23an, datorren asteko ostegunean, Salesiar ikastetxeak ate irekien jardunaldia antolatu du arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara Batxilergoa eta Lanbide Heziketako ikasteko asmoa duten guztientzat.

Datorren ikasturterako Lanbide Heziketako aurrematrikula epea maiatzaren 25ean irekiko da, datorren ekainaren 5a arte.

Batxilergoari dagokionez, bestalde, maiatzaren 4tik 14ra.

Buruntzaldean bi milioi euro zertan inbertitzeko deialdia

Gipuzkoako aurrekontua Urnietan ere erabakiko da

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu parte hartzaileen aldeko ekimena abian dago hamar eskualdetan. Aste honetan Buruntzaldean tailerrak egiten ari dira. Aurreko astelehenean Andoainen bildu ziren, eta datorren astelehenean Urnietan. Aldundiak bidalitako oharren arabera, “eskualde bakoitzeko herritarrek haien eskualdea hobetzeko bi milioi euro nola inbertitu erabakiko dute. Guztira, datozen lau urteotako foru aurrekontuetako hogeit mila milioi zertan inbertitu erabakiko dute gipuzkoarrek. Lehen fase honetan, herritarren ekarpenak jasoko ditugu”. Aldundiak herritarrei



www.aurrekontuahobetzen.eus webgunean parte hartze prozesuaren inguruko informazio osoa aurki daiteke.

parte hartzeko gonbitea luzatu nahi die. Ekarpenak egiterakoan, bi irizpide jarraitu behar dituzte parte hartzaileek: propo-

samenak eskualdearentzat onuragarria izan behar du, batetik; eta Aldundiaren eskumenekoa izan behar du, bestetik. Ekainera bitarte, jaso diren proposamenak bildu eta Aldundiko teknikariek bideragarriak ote diren aztertuko dute.

Proposamena aurkezteko hiru modu daude:

1. Martxoan, Gipuzkoa Berria aldizkariarekin batera etxetara bidalitako eskuorria betetzea.
2. www.aurrekontuahobetzen.eus webgunearen bidez.
3. Partaidetzako tailerretara joanda. Urnietakoa Lekaion izango da, apirilaren 20an 19:00etatik 21:00etara.

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA • MAIATZAK 9
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • MAIATZAK 16
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MAIATZAK 21
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MAIATZAK 9
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI • MAIATZAK 16
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MAIATZAK 23
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORATZA • APIRILAK 25
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA • APIRILAK 25
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA • MAIATZAK 23
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,
3. maila.

HAREN IBILBIDEA BILTZEN DUEN LIBURUA AURKEZTUKO DUTE HURRENGO ASTEAN

Hiazinto Fernandorena, euskararen lemazain

“Jaxinto ikastolen lemazain” izenburuko liburua aurkeztuko dute Martin Ugalde parkean datorren asteartean. Hiazinto Fernandorena urnietarrak euskararen inguruan egindako ibiliak ezagutzera

emateaz gain aitormen publikoa merezi duela uste duen lan talde batek egin du liburuaren sustapen lana. Pello Joxe Aranburu izan da ardura handien hartu duena.

Pello Joxe Aranburu euskal idazleak hartu du idazketaren ardura, eta berak eman ditu liburuaren inguruko azalpenak. Hiazinto Aiurriko kolaboratzaile izan da urte luzez eta Aranburuk liburu aurkezpen ekitaldira Aiurriko irakurleak gonbidatu nahi ditu bereziki.

Zer aurkituko du irakurleak liburuan?

Pello Joxe Aranburu: Frankismoan zehar abian jarri zen euskal mugimenduaren aitzindarietako bat dugu Hiazinto Fernandorena. Alde horretatik, berrehundik gora orrialdeetan euskararen eta euskal kulturen zein ikastolen mugimenduan zertan ibili zen kontatzen da, funtsean.

Kontakizun nagusi hori aberastera datozen bi atal ere azpimarratuko nituzke: batetik, berarekin ibilitako pertsonen testigantzak jasotzen dira. Eta bestetik Hiazintok berak Urnietako haurtzararen gainean idatzitakoa ere irakur daiteke. Izan ere, oroitzapenetan murgildu eta berarentzat idazten hasita zegoen, gaixotasunak aurrera jarraitzea galarazi egin zion arte.

Liburua irakurgarria izango den itxaropena daukagu. Inprentara bidali aurretik, zenbait pertsonak irakurri ahal izan dute eta denek ere azpimarratu digute gizon jakin baten ibilbidea jorratzearekin batera, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua, ikastolen sorrera eta garapena, euskal udalekuak... deskribatzen dituela, eta modu bikainean gainera. Gaurko belaunaldientzat primerako ikasgaia izan daitekeela nabarmendu digute. Esaterako, Euskal Herria garaikidean funtsezkoa izan den aro batean euskaltzaileek izandako zailtasunak eta horiei aurre egiteko erakutsi zuten adorea eta irudimena balora dezaten.



Lan taldeko kideak, liburuak labetik atera berritan: Mari Jesus Iartza, Koro Etxeberria, Iñaki Elortza eta Pello Joxe Aranburu.

“Ekintzailea, bide urratzailea eta jende mugiarazle moduan definituko nuke Hiazinto Fernandorena”

Pello Joxe Aranburu

Nola definituko zenuke Hiazinto?

P.J.A.: Oso jantzia den gizona da, lehenengo eta behin. Testigantza ugarik bat egiten dute honako ikuspuntuarekin: txirritu batetik urrunekoa ikusi izan du beste inork baino lehenago. Hortik aurrera, ekintzailea, bide urratzailea, jende mugiarazle eta burugogorra izan dela batez ere, esango nuke. Konparazio batera, Lazkaoko lehen andereñoa izan zen Maisabel Aldasorok aipatu izan du maiz, Hiazintok egitasmo baten alde giza taldea lanean jartzeko zuen trebezia. Ez genuke ahaztu behar, Goierri guztian sortu zen lehen ikastola izan zela Lazkaokoa; klandestinitatean sortu ere, euskararen alde ia ezer ez zegoen. Haurrekin lehen gela sortzearekin batera Hiazintok esaten omen zuen hura izango zela etorkizuneko

eskola; gainerakoei kostatzen zitzaizen hala izango zenik sinestea...

Baten batek esan dezake ez ote den handikeria izango Hiazinto ikastolen lemazaintzat jotzea...

P.J.A.: Inondik ere ez. Goierri, adibidez, Lazkaokoaren ondoren etorri ziren gainerakoak, eta irekitze prozesu guztietan aritu zen lanean.

Herriz herri ikastolak sortzen ari ziren denbora berean, Hiazintok bultzatuta irakasle formakuntzan eta ikas materialen sormenean lehen pausoak eman ziren. Non beharra, han ekimena. Eskola euskaraz emateko tituludunik ez zegoen garai haietan, berak sortu zuen Donostian irakasleen eskola, Joanes Etxeberri iparraldeko idazlearen izena jarrita. Aparte, lan ikaragarria egin zuen ikas materiala irakasle berri horiei eskura jartzeko. Gordailu argitaletxea sortu, lan taldea bildu eta makina bat liburu kaleratzea lortu zuen; ezinbesteko gertatu ziren ikasgaiak frankismoan euskaraz eman ahal izateko.

Pedagogia modernoa zabaldu zuen lehen irakasleen arte-

an dago, zenbait pedagogo berriak proposamenak berreginatu eta gero.

Bere beste bi alor jorratzen dituz liburuak: euskal idazlea eta markenting arloko sortzailea...

P.J.A.: Material pedagogikoa gain, luzea da bere ekarpena. Harribitxi bat baino gehiago topa daiteke bere bibliografia; Iparragirre abeslariari buruzko lehen biografia etortzen zait burura. Bestalde, kooperatibismoan parte hartu zuen garaian, Eroski edo Erosle terminoak Hiazintok berak asmatu zituen.

Hori guztia aipatuta, ez ote dago ahaztuegia gaur egun Hiazintoren izana?

P.J.A.: Bai, zalantzarik gabe. Arrazoi ugari egon litezke horretarako. Aspaldiko kontuez ari gara, eta euskaldunok ez gara oso iaioak geure historia estimatzen, eta gutxiago historia horren egileei aitormena egiteko eta ezagutzera emateko.

Bestalde, Hiazintok giza esparru eta ekimen ugarietan hartu izan du parte: Ikastolak, eliza, udalekuak, argitaletxeak..., eta baita horietan guztie-

Liburuaren aurkezpen ekitaldia datorren apirilaren 21ean izango da Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean, arratsaldeko 17:30ean hasita

tan buru-belarri inplikatu ere; trabaz beterikoak eta erabakiak hartu beharrekoak izan ziren horiek, eta bidean, egia esanda, zenbait haustura sortu ziren.

Hiazintoren izaera ere kontuan hartu beharrekoa dugu: inoiz ez da izan bere burua nabarmendu zalea. Beragatik balitz, ez zen antolatuko iaz Andoainen egin genion omenaldia. Liburu honen ideari buruz ere, zer esango dizut... Zalantza horien gainetik, nolalan ere, lan taldeak herri honetako kultur eragile baten izena eta izana gogoratzeko behar morala ikusi zuen. Andoaingo omenaldi hark eduki zuen arrakastarekin argi geratu zen Euskal Herrian jende ugari dagoela Hiazinto ezagutu duena. Askok eta askok zordun sentitzen da berarekin.

Andoainen, apirilaren 21erako jarri duzu aurkezpen eguna. Hortaz aparte, non eskuratu ahal izango da liburuak?

P.J.A.: Aiurriko irakurleak bertaratzera animatuko nituzke, Martin Ugalde parkean izango da aurkezpen ekitaldia, arratsaldeko 17:30etik aurrera.

Euskal Herriko liburu denda gehienetan banatuko da, Elkar argitaletxea arduratuko baita banaketaz. Urnietan, bere jaio-terrian, laster jakinaraziko dugu non egongo den salgai. Salneurri egokia ipini zaio, 12 eurokoa.

Gure hurbileko historia era samur batean jakin nahi duenari gomendatzeko moduko erosketa dela esango nuke.

Aurkezpen ekitaldia:

Apirilak 21, asteartea.

17:30. Martin Ugalde kultur parkea.

Santakrutzak 2015 | Konpartsa partaide gehiagoren bila dabil

Buruhandi eta erraldoien konpartsaren deialdia



Buruhandi eta erraldoien konpartsako kideek herriko gazteei deialdia luzatu diete: “Kaixo Andoingo gazte-

dia. Buruhandi eta erraldoi konpartsan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Parte hartu nahi baldin baduzu telefono zen-

baki honetara deiezazu: 636 425 197. Taldean oso giro ona daukagu eta gauza asko egiteko gogoia ere bai. Anima zaitetze!”.

Aurtengo Santa Krutz jaien egitaraua

Apirilak 25, larunbata Koadrilen eguna

- 11:00** Bekoplazan hasita herri kirolak, Incansables txarangak alaituta.
- 12:00** Gure Esku Dagoren ekimena: “Herritarron borondatea ehuntzen” Zumea plazan.
- 14:30** Koadrilen bazkaria. Txartelak Salgai: Txitibar, Xaxi, Irunberri eta Txindoki tabernetan. Dena jaso ondoren final amaierako sorpresa Zumea plazan.
- 17:30** Zumea plazan hasita koadrilen kalejira, Incansables txarangarekin.
- 20:00** Karaokea txosnatan.
- 22:30** Dj Nemux txosnatan.

Apirilak 30, osteguna

- 16:00** Haur Pregoia Zumea plazan. Ondoren, txokolate jatea, judo eta karate erakustaldia eta puzgarriak.
- 19:00** Kalean zehar buruhandi eta erraldoiak Zumea plazatik.
- 19:00** Basterotik Gora Kaletxiki txaranga.
- 19:00** Zumeatarra elkartearen danborrada.
- 19:30** Pregoia Kale Nagusiko dendaria ohien eskutik.
- 20:00** Bekoplazan txosnen Irekiera.
- 23:00** Elektro txaranga txosnatan hasita.
- 23:30** Bekoplazan berbena: Sardeska eta 3gabe2.
- 04:00** Soka salto txosnatan.

Maiatzak 1, ostirala

- 09:30** Patin lehiaketa.
- 10:00** Diana.
- 10:30** Kros herrikoa.
- 11:30** Txalaparta emanaldia espigoiean. Ondoren txalaparta tailerra.
- 11:30** Leizaur parkean haur krosa.
- 12:30** Leizaur parkean txirringulari lasterketa.
- 12:30** Basteron Kamioi Banda, Abesbatza, Urki, Txistulariak, Triana...
- 17:00** Txalaparta ibiltaria tabernaz taberna.
- 17:30** Erreka Jaitsiera.
- 18:00** Bekoplazan Herri danborrada.
- 18:30** Bizikleta festa haurrentzat Zumea plazan, 2-10 urte artekoentzat.
- 19:00** Txistulariak Txalaka tabernatik hasita.
- 19:30** Taberna arteko pintxo lehiaketa.
- 23:30** Bekoplazan Estricalla, The Riff Truckers, Osso.

Maiatzak 2, larunbata

- 09:30** Dultzaina Topaketa.
- 09:30** Haurrentzat arrantza lehiaketa espigoian.
- 10:00** Herriko artisautza azoka Zumea plazan.
- 12:00** Basteron hasita kantu kalejira eta txalaparta ibiltaria.
- 12:30** Urkiren kalejira eta emanaldia Zumea plazan.
- 14:30** Kale Nagusian auzo bazkaria, La Jodedera taldearekin.

- 17:00** Izartxo eta kale hezitzaileekin Jolasak Zumea plazan.
- 17:30** Basteron hasita Soinuak taldearen kalejira eta Azelain Baleta.
- 18:30** Pailazoak haurrentzat.
- 19:00** Sardin Jatea Zumea Kallean.
- 19:30** Elkarleen arteko bakailao txapelketa Kale Nagusian. Irunberri Fanfarrak Kaleetan zehar.
- 22:30** Peña Santa Krutz Elkarlearen Danborrada.
- 23:30** Berbena Txosnatan.
- 23:30** Batukada: Zozongo. Basteron hasita eta txosnatan amaituz.
- 01:00** Bekoplazan Ingo Al Deu.

Maiatzak 3, igandea

- Santa Krutz eta Elegante Eguna**
- 10:00** Dultzaineroekin Diana.
- 11:00** Ikurriñaren jaitsiera, eskopeteroek Lagunduta.
- 11:00** Ezpata dantza, Agintari harrera.
- 11:30** Meza Santua Santa Krutz parrokan.
- 12:00** Ezpata tantza eta brokel dantzak.
- 12:30** Andoingo trikitilariak.
- 12:30** Txakoli dastaketa ermita parean.
- 18:00** Sagardo lehiaketa Zumea plazan.
- 18:00** Zumea plazan “Basatloak” taldearekin.
- 18:00** Kalejira Elegantea.
- 22:00** Bekoplazan txosnen itxiera eta Elegante egunaren amaiera.

Gazte oporraldiak 2015, deialdia zabalik

Andoingo Gazte Informazio bulegotik ohartarazi dutenez, apirilaren 21a bitarte luzatuko da Foru Aldundiak sustatzen duen “Gazte oporraldiak” egitasmoan izena emateko aukera. Udan oporraldia igartzeko deialdia 14 eta 17 urte artekoek zuzenduta dago eta horri buruzko informazioa eskuragarri dago Andoainen bertan.

INFORMAZIOA

Gazte Informazio Bulegoa
Pio Baroja 1, behea
Ordutegia:
11:00-13:00 Asteazkenetik larunbatera.
17:00-20:00 Asteazkenetik ostiralera.
943 593 911
gibandoain@gaztelokala.com
Epea:
Apirilak 21, asteartea.

San Juan jaiak prestatzeko iritzi bilketa

Aurtengo Sanjuanen prestaketan, herritarrek apirilaren 30era arte izango dute proposamenak egiteko aukera. Asmoa duenak ahalik eta xehetasun gehienekin aukeztu beharko du Bastero kulturgunean: zein den proposamena, ekintzaren eguna eta ordua, aurrekontua, azpiegitura... Gainera, proposamenean bi egun aukeratu beharko dira, lehenengoan posible ez balitz bigarren aukera bat izateko.

nork bota erabakitzeko. Proposamenak egiteko aukera jada irekita dago, maiatzaren 8ra arte. Basteron eta udaltxeko Atarian dauden postontzien bidez eman daiteke iritzia. Deialdi honetan, txupinazoa nork botatzea nahi den azaltzeaz gain, horren arrazoa azaltzea ere derri gorrezkoa izango da.

Jaiak aurtan ekainaren 19tik 24ra izango dira.

PREGOIRAKO PROPOSAMENA

Bestalde, beste deialdi bat ere ireki dute, txupinazoa

ROCK JAIALDIA

Ekainaren 13an ospatuko da rock jaialdiaren edizio berria.

Leyçaur aldizkariaren deialdi berria

Andoingo historiaren inguruko ikerketa lanaren oinarriak onartu dira. Udal artxi- boak luzatu du deialdia, Leyçaur adizkaria oinarri hartuta eta orain arte gutxiago ikertu diren gaiak aztertuta, Andoingo historiaren laburpena egiteko.

Oinarriak Andoingo Udaleko web orrialdean ikus daitezke eta egitasmoak aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da. Proiektu bakarrari emango zaio dirulaguntza, 10000 eurokoa,

hain zuzen. Lana euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da.

ALDAKETAK DEIALDIAN

Deialdian hainbat aldaketa egin dituzte. Azaldu dutenez, honakoak dira arrazoiak: “Andoingo historiaren laburpen gaurkotua edukitzeko beharraz jabetu izana eta, 400. urtemugaren giroan, Leyçaur aldizkariaren inguruan hausnarketarako geldialdi bat egitea, aurtan 25 urte beteko dituelako”.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

LARUNBAT HONETAN TAILERRA BASTERON

Postalak egiteko tailerra, argazkietatik abiatuta

Postalen tailerrera andoaindar guztiak gonbidatu nahi ditu Gartxot Arregik; nahikoa da Andoaingo herriarekin edo herritarrekin lotura duen argazki zahar edo berriren batekin agertzea tailerrera.

Irudia postalera eraman eta munduan zehar edozein bazterretara zabaltzeko bidea jarriko da tailerrean. Ekimena 400. urteurrenaren harira antolatu da.



Tailerraren nondik norakoa azalduko al zenuke?

Gartxot Arregi: Etxean daukazu argazki zahar edo berri hori postalera eramatea da egitasmoa, nork bere irudi kuttun hori objektu fisiko bihurtu azken batean. Andoaingo herriarekin zerikusia daukan irudia izatea proposatzen da; nork bere postala egin ahal izango du tailerrean bertan, eta munduan zehar daukan familiar edo lagun hori idatzi eta bidaltzeko pronto jarri. Andoain burujabe egin zela 400 urte betetzen direla eta, ospakizun horiekin lotzen da ekimena. Andoaingo irudia lau haizetara zabaltu nahi da, azken batean.

Zer eraman behar du parte hartzaileak tailer horietara?

G.A.: Nahikoa du etxean irudi bat eta postalaren hartzailea nor izango den aukeratzea. Irudi hori edozein formatuetan eraman dezake: negatiboa edo positiboa, diapositiba, argazkia paperean nahiz digitalean... Argi utzi behar da ez dela teknologia berrietan zertan jakitun izan behar. Tailerrean tresneria jarriko da postalak osatzeko, eta neu egongo naiz prozesu guztia aurrera eramateko, edo behar den laguntza eskaintzeko. Bi ordenagailu jarriko dira lanerako, bata inprimatzeko eta bestea eskaneatzeko. Irudia eskaneatu eta gero postala sortuko da, parte hartzaileak horrekin nahi duen muntaketa egin dezakeelarik, eta nahi duena idatzi.

Idatzia daramaten postal guztiak bidaliko dira Correos zerbitzuaren bitartez; Andoaingo udalak konpromiso hori hartu du.



Gartxot Arregiren eskutik bi tailer eskainiko dituzte larunbat honetan, dohainik.

Andoaingo zein irudi izan daiteke egokia?

G.A.: Nork nahi duen hori. Izan daiteke Andoaingo garai bateko herritarren erretratu zahar bat, izan daiteke zure auzoko zuhaitz edo paraje bat... Nor bere gogo, amets, edo desioaren arabera.

Postala bera ere neurri ezberdinetakoa izan daiteke. Baita panoramikaren formatuko bat ere, zabalean alegia. Correosek ematen dituen neurriak errespetatzea den bitartean...

Tailerrak baldintza malguak eskaintzen ditu...

G.A.: Bai. Larunbat goizez eta arratsaldez irekiko da tailerra, bost orduz guztira, eta parte hartzaileak libre dauka nahi duenean azaltzeko, postal bat egiteak ez baitu denbora askorik eskatzen. Bestalde, ez zaio mugarik jarri parte hartzaileen kopuruari. Hori bai, aurrez izena eman beharra dauka, tailerra txukun antolatu nahi bada beharrezkoa baita zenbatekoa jakitea.

Basteroko ekitaldi gelan egingo da, baina eguraldia lagun, kalera aterako da; Bastero plazara hain zuzen.

Tailerraren planteamendua ikusita, badirudi gaur egungo gizarteak gaitzen ari diren bi jardun aldarrikatu nahi direla: argazkiak paperera eramatea eta postalak idaztea.

G.A.: Bai, arrazoi duzu. Gero eta birtualagoa bihurtzen ari zaigu

bizimodua; teknologia modernoaren eta whatsapparen menpe, baztertzen ari gara gizakiak gizakiarekin komunikatzeko beti erabili izan dituen moduak. Ahaztu egin zaigu ia-ia eskuz idaztea, ia-ia arrotza egoten zaigu postal bat bera idaztea ere. Gure etxe-



400 urte: mundura zabaltzen

Postalen tailerrak:

–**Apirilaren 25ean.**

10:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:30etara.

Izen ematea: apirilaren 23ra bitarte.

–**Maiatzaren 30ean.**

(Argazkialdia'15 jaialdiaren barnean).

Izen ematea: Maiatzaren 12tik 28ra.

Izen emateak:

Bastero Kulturgunean.

Telf: 943303540

kultura1@andoain.eus.

Prezioa: Dohainik.

Webgunea

Gartxot Arregiren argazkiak (bidaia, fatxadak, gizakiak, objektuak, erretratuak...) ikusgai daude gartxotarregi.net webgunean.

“Postontzira jada errezi-boak besterik ez zaizkigu iristen, eta noiz edo noiz postalaren bat jasoz gero ilusio handia eragiten digu”

ko postontzira jada errezi-boak besterik ez zaizkigu iristen, eta noiz edo noiz postalaren bat jasoz gero ilusio handia eragiten digu. Nahiz eta bi lerro besterik ez eraman postal horrek.

Azken batean, ekimenak badauka berarekin kutsu erromantikorik. Irribarre zabaltu nahi da mundura, maite duzun edo besterik gabe ezagutzen duzun pertsona hartzaile izanik, hain zuzen ere. Munduan bakarra den irudi bat, Andoaingo herria edo bere herritarrek gogora ekartzen dizkizun irudi bat erabiliz horretarako.

Gainerakoan, zein beste egitasmo dabilkizu eskuartean orain-txe, Andoainek lotura duena eta azaltzeko moduan dena?

G.A.: Bizpahiru aipatu ditzaket. Batetik, Beñatek (anaia) bere garaian osatu zuen argazki eta artelanen artxiboarekin nabil bueltaka aspalditxoan. Eduardo Arreseygor eta biok artxibo horretako zenbait obra aukeratu eta maiatzaren 16an hastekoa den Argazkialdia jaialdian jarriko ditugu erakusgai. Erakusketan beste hiru egileekin osatuko da: Nagore Legarreta, Iñigo Royo eta Lobo Altuna. Teknika mistoak erabiliz, Beñatek esperimentazio bidetik jo zueneko alderdi hori zabaltu nahi genuke.

Bestalde, Andoaingo leku fisikoetan ateratako argazki zaharrek irudizko jokoak egiteko asmoa daukat. Argazki horiek beren lekura eraman nahi ditut, espazioa eta denbora nolabait uztartuz.

Azkenik, Kale Nagusiaren irudia biziberritzeko egitasmo horren barruan, Alaiz Bikuña eta biok etxe bateko horma (Correos-en egoitza parean) mural batean bihurtzeko asmoa daukagu laster.

Ondarea ezagutzeko ibilbide gidatua 09:00etan irtengo da

Andoaingo historian sakontzeko ibilaldiak



Burdina taldeak Andoaingo historia hobeto ezagutzeko irtetara gidatuko du, Andoaindarrak 400 ekimenaren ekitaldien baitan.



Igande honetan—Apirilak 19—Andoaingo ardatz izango duten bi mendi ibilaldi antolatutako dira. Lehen irtengo dena eta ibilbide luzeena duena Euskaldunak antolatutako “Andoaingo ibilaldia” da, Andoaingo lur eremuen mugetatik igaroko dena. Goizeko 07:00etan irtengo dira Kale Nagusitik, Euskaldunak duen egoitza nagusitik.

Bi ordu beranduago, goizeko 09:00etan, Burdina taldeak Andoaingo historia hobeto ezagutzeko irtetara gidatuko du, Andoaindarrak 400 ekimenaren ekitaldien baitan. Ibilaldi gidatua izango denez, he-

Goizeko 09:00etan Euskalduna mendi elkarteko egoitzatik abiatuko dira

rrian dauden karobi, dolmen, telegrafo eta karlisten garaiko gotorlekuen berri emango dute. Ibilbide hori ere Euskalduna mendi elkarteko egoitzatik (Kale Nagusia, 31) abiatuko da, Goikoplazan amaitzeko. Bisitaldian zehar honako toki eta aztarnak ikusi ahal izango dira:

- Sorabillako Bordatxuri, Erramuta edo Pagarteko karobiak.
- Belkoango trikuharria: Ehorzteko hilobi harri edo eraikina, Neolito-Brontze garaikoa.
- Aitz Beltzeko telegrafo dorea.
- Sorabillako gaztelua, Allurralde edo Zumalakarregiren Gotorlekua bezala ezagutzen den guda karlisten gotorlekuaren aztarnak.

BI IBILALDI

“ANDOAINGO IBILALDIA”

Andoaingo lur eremuen mugetatik igaroko da.
Antolatzailea: Euskalduna.
Luzera: 41,84 km.
Pilatutako igoera: 2153 m.
Jeitsitako guztia: 2153 m.
Kontrol guneak: Hiru.
Ordua: 07:00.
Irtetara: Euskalduna M.T.
Iritsiera: Euskalduna M.T.

“GURE HISTORIAREN LAU LEKUKO BELKOAINEN”

Herriko ondare arkeologikoa ezagutzeko ibilbide gidatua.
Antolatzailea: Burdina, Euskalduna, Allurralde.
Luzera: 8,73 km.
Pilatutako igoera: 458 m.
Pilatutako jaisiera: 468 m.
Hamaiketako: Garate.
Ordua: 09:00.
Irtetara: Euskalduna M.T.
Iritsiera: Goikoplaza.



Belkoango trikuharria ezagutzeko aukera izango da igande honetan.

Andoaingo Gudua ekimena: “Soldaduak behar dira”



Irailen errepikatuko dute 2013ko udazkenean antzeztu zuten gudua.



Antolatzaileek martxoan aurreratu zuten bezala, aurrera darraite lanek irailaren 11 eta 12an Andoaingo gudua antzezpene eskaini ahal izateko andoaindarrei eta kanpotik bertaraten diren guztiei. Hala eta guztiz ere, nahi baino motelago ari dira, espero ez zuten arazo batekin egin dutelako topo: oraingo soldadu edo fusilari gisa jarduteko izena eman dutenak gutxiago dira 2013an baino, lehen aldiz saioa eskaini zutenean.

Izan ere, 2013n parte hartu zuten batzuek ezin izango dute parte hartu aurten, eta behar baino gutxiago dira orain arte izena eman dutenak. Antolatzaileek adierazi dute arazoa konpondu ezean zaila izango dela aurtengoa

antolatu eta behar bezala mustu ahal izateko behar adina jende izatea, bi egunetan 1837an izandako gertakari anker hura txukun eta egoki antzezteko lagun dezente behar baita, bai behintzat andoaindar guztiek eta kanpotik bertaraten direnek ulertuko badute izan zen borrokaren neurria eta garrantzia.

Horregatik, antolatzaileek dei egiten diete oso bereziki Andoaingo 16 urtetik gorako Gazte eta helduei izena eman dezaten soldatu edo fusilari gisa ibiltzeko Andoaingo gudua antzezpenean, dela karlista gisa, dela liberalen txapelgorri edo atzerriko soldadu gisa. Orain izena ematen dutenak ez dute beharrezkoa arma baimena, tirorik egiten ez duten armekin ibiliko baitira.

IZEN-EMATEA

Apirilaren 30a baino lehen eman behar da izena, maiztzean izango baitira trebatzeko lehenengo saioak.

656 782 521

andoaingogudua1837@gmail.com

“Pagazaren buzoia” dela eta, ika-mika politikoa

Pasa den otsailaren 8an, Joseba Pagazaurtunduenaren heriotzaren hamabigarren urterenean, haren senide eta lagunek buzoia jarri zuten Ibarrolaren eskulturaren ondoan dagoen zuhaitzean. Gerora jakin zenez, baimenik eskatu gabe ipini zuten buzoia hori. Handik egun batzuetara iritsi zen Udaletxera baimen eskatera. Gobernu taldeak bi hilabetez bere horretan utzi du buzoia, nahiz eta egungo Udalaraziak hori galerazi. Laster buzoia kentzekotan dira.

Horren aurrean, Andoaingo PSE-EEk sozialisten webgunean sentsibilitate falta egotzi dio gobernu taldeari.

Hurrengo Udal batzaraldian alkateari argibideak eskatuko dizkiotela adierazi dute ohar horretan.

Adierazpen horiei erantzuna eman die aste honetan gobernuko ardurak dituen EH Bildu koalizioak: “Buzoia betirako uzteko asmoa dute sustatzaileek. Jakin badakite, baina, Udalak ezin duela halakorik onartu, beste gauza asko onartu ezin dituen bezala. Gaur gaurkoz, Udalak onartuak dituen araudiak kontuan hartuta, modu horretan ez da posible”. EH Bilduren ustean “berriz ere, gai honen inguruan, konfrontazioa eta giroa nahastea bilatu besterik ez dute egin nahi”.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Joan diren opor egunak, hots, tradizio katolikoa Aste Santua deitzen direnak, liturgia bereziz beteriko egunak dira. Bada, egun horiei Udaberriko oporrak deitzen dionik ere, nolabait gizarte zibila eta edozein erlijio tradizio bereizteko asmotan. Estatu laiko batean ospakizun horiek esparru pribatuan dute gunea, eta horretan sinisten duenak egun horiek bizi ditzake bere sinesmenaren arabera, eta hori ez duenak beste erabateratzen.

Bada, ordea, egun horietan beste liturgia zibila gure herrian aspaldidanik ospatzen dena: “Aberri Eguna”. Pazko igandean ospatzen da eta ez da kasualitatea egun horretan ospatzea, esan nahi baita tradizio katolikoan Jesusen berpizkundea ospatzen den egun berean. Jakina, egun hori jarri zuenak tradizio horretan sinetsiko zuen eta hortik tradizio katolikoa eta aberria lotzeko asmoa eta egun horretan Aberri eguna ospatzeko ohitura. Agian garaia da, XXI. mendean baikauda, batasunean eta inongo erlijio tradizio haratago Euskal Hiriaren eguna ospatzeko. Denaren, oro aldatzen den gisara, ospakizun hauek ere aldatuz doaz azalean nahiz edukian. Gogora datozkit Frankismoaren garaiko Aberri egunak! Ah zer nolako errepresioa izaten zen! Alderdiek, aurtan ere, nork bere erara ospatu dute. Independentziaren aldekoak, estatus berri baten aldekoak, beste zenbait askatasuna eman die egun hori nahi bezala ospa dezaten eta azkenik, beste alderdi batzuk aurka agertu dira. Azken hori ez dut ulertzen, nork bere identitatea ospatzeko askatasuna hain ederra izanik. EAJko eskua luzatu diola EH Bilduri; honek independentzia zailtasun guztien gainera gauzatzeko erantzun diola..., eta hor doaz bakoitza bere aldetik. Eskuak elkartzeko gauzak nahiko argi eduki behar dira. Gai asko daude oraindik erantzunaren zain, hala nola: bakea, bizikidetzatza, presoak, biktimak, bake ponentzia,... gai potoloak dira egun batetik bestera konpontzeko. Bidea egiten jarraitu beharko da.

Honen arik, Gure Esku Dago ekimenari heldu nahi nioke. Gehiegikeria ote esatea nork berea defendatu beharrean horrelako egun seinalatuan erabakitze eskubidea aldarrikatzea, nire ustez, hori baita oraingoz lehentasuna duen

Liturgia desberdinak!

gaia. Herriari galdetu eta herriak aukeratu dezala herri honi eman nahi dion egitura: Independentzia, autonomia, estatut berria, autogobernua, federalismoa etab. Hain zuzen, zutabea idazten nagoela irakurri ahal izan dut Gure Esku Dago mugimenduak aurkeztu duen egitaraua, non Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionan izanen diren ospakizun nagusiak. Bestalde, “Oihal eguna” ere antolatuko da Antigua auzoan, esan nahi baita oihal horiek herritarren borondatearen sinboloak izanen direla eta kolore anitzeko oihal horiekin kutxa erraldoiak egingen direla.

Ez dago gaizki berriro azpimarratzea erabakitze eskubidea ez dela Independentzia. Eskubide demokratikoa baiziki. Kontuz ibili behar da alderdi honek edo hark errebindikazioa bereganatzeko tentazioa izan dezakeelako. Hau ere askotan esan dut baina nire irudiko Katalunian ez dira gauzak ongi egin eta hortik oraingo komeriak. Herritar guztiek, edozein dela defendatzen duten alderdia, eskubide demokratiko hori defendatzea, eta eskubide hori gauzatzen denean zein egitura nahi dugun erabakitze aukera izanen dugu. Ekaineko ekintza nagusi hori garrantzitsua dela deritzot eta uste dut edozein alderdi demokratikok defendatzea dezakeela.

PAGAZAREN POSTONTZIA

Honen harira gutun irekia idatzi nuen, sufrimendua dela eta ez dela. Sufrimendua sufrimendua dela pentsatzen jarraitzen dut, eta sufrimendua ezin daitenkeela norbere alderdi politikoaren alde erabili. Eta postontzi hori zela eta postontzi handi zabalagoaren alde agertu nintzen. Andoainen ere sufrimendua leku askotan eta pertsona askorengatik urratu baititu sentimenduak.

Udaletik atera den agindua, postontzia kentzekoa alegia, eta ondorioz sortu diren erreakzioak ez dira egokiak, ezta justuak ere. Udalari sentsibilitate falta atxikitu zaio batik bat PP eta PSOEren aldetik. Badi-rudi Udalak araudi bat duela gai honen inguruan eta Udalak hori bete nahi duela. Eta nik diot: ze gertatuko zatekeen alderantziko egoeran?

Udalari dagokio biktima oro-ren oroigarri duin bat eraikitzea Andoaingo herrian sufrimendu guztiek bere agerpena izan dezaten. Ezin dezakegu justizia gure esku hartu eta gure probetxurako erabili. Izan gaitezen helduagoak!

Postontzia: Mila esker denei

Jada igaro dira egun eta aste batzuk eta gure emozioak lasaituta eta nekea ere pasata, bizi-tutako guztiaren ikuspuntua beste bat da. Honetatik bertatik dator hausnarketa txiki honen eta eskerrak ematearen beharra. Elkarre bat sortzeko aukerari bueltak ematen hasi nintzenean, gogoan dut oraindik persona batek nola esan zidan oso erraza zela, nahikoa zela paper batzuk bete eta sinadura batzuk lortzea. Ba ez! Ez da batera erraza. Gaur egun zaila da lagundu nahi izatea ere. Baina nik zortea izan dut erabateko jende jatorrez inguratzeko eta beraien zordun naizela iruditzen zait. Zordun nahizela iruditzen zait, egin dutena benetan horrela sentitzen zutelako izan dela.

Jakin badakit ez dela oso polita izenak ematea norbait ahazteko aukera

dagoelako (barka diezadala ahaztu dudana hori), baina SuperHk egin beharra dauka eta halaxe egingo du. Eskerrak eman nahi ditut, baina ez edozer modutan, letra larri adierazi nahiko nuke nire inguruan egon diren horiek guztiak diren bezalaxe. BIKAINAK guztiak.

MILA ESKER SuperHrengan konfidantza adierazi duzuen guztiei, hau guztia aurrera eraman ahal izateko lagundu duzuen guztiei.

MILA ESKER bolondres, elkarre, Udalak eta Aiurri zuen erabateko babesari eta eskainitako laguntzari.

MILA ESKER Mikel eta Amaia, zuen familia alde batera utziz gure familira elkartzeagatik.

MILA ESKER Uxue eta Uxue, hortxe egoteagatik eta oraindik elkarrekin egin dezakegun guztiagatik.

MILA ESKER Iñaki eta Dorleta, zuek

beste inork baino hobeto dakizuelako erokeria honen zergatia.

MILA ESKER Aran, zure laguntza beti eskaintzeagatik eta edozer gauza egiteko prest egoteagatik.

MILA ESKER Maite, jakin badakizula hor egotearekin nahikoa dela.

MILA ESKER Osaba Pipi, Super H zeu zarelako.

MILA ESKER Borja eta Joseba, zuek zaretelako makinaria honen oinarria eta “egun horretaz” gain urte osoan ere lanean aritzen zaretelako orduak eta orduak, mugikorrarekin, ordenagailuarekin aurrean etxeko bakardadean

Eta batez ere MILA ESKER eta mila esker gehiago nire guraso, anaia eta nire txikiei. BETI beraiengatik, beraientzeko eta beraiekin.

Almu Salas # Super H taldea Urnieta

Postontzia: EAJ zabor kontutan Andoainen ere biluzik dela agerian uzten du Bizkaia

Bilboko Artigas zabortegi ondo-ko baso eta erreka plastikoz beteta daudela salatu du Eguzki UR Aren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamentuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean. Hondakinak ez ziren birziklatzea eraman, eraman behar ziren bezala, eta, gero, huts nabarmen baten ondorioz, inguruetan sakabanatu ziren. Gauzak horrela, zabortegi ondoko mendiak zabortegiaren beraren zati bat dirudi (Berria). Hura gertatu zenetik bi hilabete baino gehiago pasatu da, baina erakundeek ez dute parajea lehengoratzeko neurririk hartu, eta, gaia aipatu zaienean erakutsi duten jarrera ikusita, ez dirudi hartzeko asmorik dutenik ere.

Honekero irakurleak esango du: oso ondo, baina honek guztiak ba al du Andoainekin zerikusirik? Bai, jaun-andrea, eta irakurtzen jarraitzeko adina pazientzia baduzu, berehala atzemango duzu...

Bizkaiko erakundeetan EAJ da nagusi. Gipuzkoan zabortegiekin zerikusia duen edozer dela eta, sekulako zalaparta sortzen duen EAJ berbera. Izan ere, EAJk Gipuzkoan protesta egiten du zabortegiak ixten ez direlako, baina baita ixten direnean ere (horra hor Zarauzko Urteta). A zer eskandalua plastikoen Artigasen ordez Sasietan gertatu izan balitz! (Edo iazko apirillean Berriatuan antzemandako Q sukarra Lapatzen agertu izan balitz!) bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Codigo=13142&idioma=EU.

EAJ hondakinak erraustearen aldekoa da, eta dagoeneko agindu du Zubietako proiektua martxan jarriko duela, hurrengo hauteskundeetan Gipuzkoako gobernua berreskuratzen badu. Alabaina, proiektu txixixeagoa izango da, alde batetik, lehengo neurri gaineak zela-ko (kostata, baina azkenean publikoki ere hori onartu behar izan dute) eta, bestetik, Gipuzkoan azken urteotan birziklatzearen alde egindako lanak, kontraesanak kontraesan, inork gutxi espero eta, jakina, errauskailuzaleek desio bai-

no askoz emaitza hobeak lortu dituelako.

Errauskailuak ez du fama onik, ordea, ezta atez atekoaren kontra muturreko jarrerak erakutsi dituzten hainbat herritarren artean ere. Batez ere errauskailutik gertu egongo liratekeen herrietan, esaterako, Andoain. Horregatik EAJ saiatzen da bere apustua leuntzen errauskailua zabortegien “alternatiba” dela sinestaraziz. Izan ere, zabortegiak dira etxe atzeko patioan inork nahi ez duen beste azpiegitura horietako bat.

Bada, EAJk sinestarazi nahi duen ideia horren aurrean, behar bezainbestetan errepikatuko dugu errauskailuak ez duela inolaz ere zabortegien beharra bazterten. Izan ere, errauskailuak sortzen dituen errauts eta zepak botatzeko zabortegiak behar dira. Are gehiago, errauts eta zepa horiek arriskutsuak direnez, ohiko zabortegien ordez, zabortegi bereziak behar dira. Baina irakurleak ez du zertan itsu-itsu sinetsi esaten duguna. Horrela dela egiaztatzeko, Bizkaiko egoerari begiratu bat bota baino ez du egin behar. Izan ere, Bizkaiko hondakin politikak Zabalgarbiko errauskailua du oinarri duela hamar urtetik. Eta Bizkaian zabortegiak desagertu al dira? Inola ere ez. Zabalgarbiko jarraitzen dute, eta zabalgarbiko jarraituko dute urte askoan, gainera. Horren frogarik argiena da Bizkaiko Foru Aldundiak aurtan bertan Artigaseko zabortegia handitzeko lanak lehia- ketara atera izana. Lan hauek zabortegia beste 26,5 urtez zabalik mantentzea ahalbidetuko dute. Hau da, 2041. urtera arte! (Deia).

EAJk dio: “Zabortegirik inon ez”. Baina “inon ez” horrek herrialde guztietan balio al du? Ez, Gipuzkoan bakarrik, “kasualitatez”, gehien birziklatzen duen herrialdean bakarrik, alegia. Bizkaian, berriz, zabortegiak mantentzen eta handitzen ditu, ikusi dugun bezala, eta, gainera, ez dirudi haien kudeaketan aplikatzen duenik Gipuzkoan aldarrikatzen duen zorrozatasuna. Horren lekuko da Artigasen salatu berri dugun plastikoa botatzea, baina hori ere peccata minuta da

beste zenbait kasuarekin alderatuta. Horra hor Zallako Las Lagunaseko zabortegia. Udalak, irregularitasun ugari atzeman ondoren, ixteko eskatu du. Bide batez aipatu behar dut, irregularitasun horietako bat Zabalgarbiko zepak bertan bota izana dela (Zallako Udalak).

Bai, Bizkaiko ispluiri begiratu baino ez zaio egin behar konturatzeko EAJ biluzik dagoela Gipuzkoan zabortegien kontra sutsu baino sutsuago ari denean. Zabortegien kontra sutsu baino sutsuago, betiere baldin eta Gipuzkoan badaude, eta, oroz gain, errauskailuaren alde jo ta su! Kontua da ez birziklatzea, edo ahalik eta gutxien birziklatzea, edo ahalik eta gutxien birziklatzea eta, gainera, ahalik eta beranduen hastea. Eta horren adibide garbia ere bada Andoain. Izan ere, PSEk eta EAJk legegintzaldi hasiera-hasieratik 5. edukiontzia barrikada gisa erabili dute Udalak birziklatze bidean pauso sendoagorik ez emateko.

Hori garbi ikusi dugu Hondakinen Mahaian. Bertan, eztabaida askoren ondoren bi puntutan lortu genuen akordioa: materia organiko era berezian bildu behar dela eta txipdun edukiontzia (marroi) bidez egitea bata eta 2016an Andoainen sortzen den hondakinaren %60a era bereztuan biltzea bestea. Lehenengo, edukiontzia marroia, lehen bait lehen mar-txan jartzeko eskatzen ari dira PNV eta PSE (dakidanez, egun oraindik aurrekontuak luzatuta daudenez diru partida zehatzik ez dago honetarako), aldez bigarrenak lortzeko hartu beharreko neurriez, hau da, bilketak unibertsalak izan behar duela eta %60a iristeko errefusaren ontziak ezin duela egunero irekita egon, ez dute ezer jakin nahi. Eta erabakiak hartzeko partidu bat baino gehiago behar denez, lanean ari garen eragileak eta batez ere herri-tarrak zigortuta.

Beraz, honaino iristeko pazientzia izan duzun irakurle hori, ikusten duzunez, testu hasieran aipatu dugun Artigaseko gertaerak Andoainekin ere badu zerikusirik, bai.

Eguzki taldea Andoain

MIKEL PERUARENAREN "SU ZELAIK" ELEBERRIAK JASOKO DU EUSKAL LITERATURAZALEEN AKADEMIKIDEEN SARIA

Peruarenak Basteron jasoko du 111 Akademia Saria

111 Akademiako kideek Mikel Peruarena idazle ereñotzuarraren "Su zelaia" eleberria izendatu dute iazko obrarik gogokoena eta, beraz, 2014ko saria irabazi du.

Maiatzaren 7an ospatuko da 2014ko 111 Akademiaren Saria ezagutzera emateko ekitaldia, Andoaingo Bastero kulturgunean, arratsaldeko 19:30ean.

1 11 Akademiako akademiakideek hautatu eta izendatuta, Mikel Peruarenak idatzi eta Susa argitaletxeak plazaratutako Su zelaia eleberriak jasoko du 2014ko 111 Akademiaren Saria. Hiru bozketa txandetan garatu da aukeraketa prozesua, urtarrilean hasi eta apirilaren 12an amaitu dena. Lehenengo txandan, 2014an gogokoena izan zuten liburuaren alde bozkatzeko eskatu zitzaizen 195 akademiakideei, eta lehen txanda hartan saridun izendatzeko behar zen botoen %30a lortu zuen obrarik egon ezenez, akademiak ohiko prozedura jarraitu eta beste bi bozketa txanda egin zituen. Hirugarren eta azken txandan Mikel Peruarenaren Su zelaia eta Iban Zalduaren Inon ez, inoiz ez izan ziren bi finalistak eta, alde txikiagatik bada ere, Peruarenaren lana suertatu da garaile; idazle ereñotzuarraren eleberriak Zalduaren ipuin-bildumak baino hiru boto gehiago jaso ditu.

Gauzak horrela, orain irabazleari saria ematea baino ez da geratzen. Maiatzaren 7an ospatuko da 2014ko 111 Akademia-



Gorka Arrese Susa argitaletxeako editorea eta Mikel Peruarena idazlea, liburuaren aurkezpen ekitaldian.

@Kronika

ren Saria ezagutzera emateko ekitaldia, Bastero kulturgunean, arratsaldeko 19:30ean.

Honakoak dira Peruarenak 2014ko urrian liburua aurkeztu zuenetik jaso ditugun iruzkitako zenbait pasarte:

- 'A priori euskal literaturako liburu erreferente bilakatzeko elementu guztiak ditu, baina uste dut horretan geratuko

dela asmoa (Publizitateak, ahoz ahokoak eta sarien zirkuak ez dio lagunduko)'.

- 'Itzel gustatu zait Mikel Peruarenaren bigarren eleberria. Pertsonaia gehiegi agian, baina horrelakoxea izan zen eskualdunen patua Gerra Handian: astirik ere ez gazteak ezagutzeko, berehala hiltzen zirelako su zelaietan'.

- 'Su zelaietako kontuak dira nagusi, baina erretaguardiakoak, ospitalekoak, intsumiso egin zirenenak eta abarrak azaltzen dira, han eta hemen, ehunka pertsonaien bidez. Benetako harribitxia eta benetako altxorra'. Iritzi guztiak www.111akademia.com web gunean irakur daitezke.

SINOPSIA



Frantziako Armadak 1914ko udan gerrara deitu zituen euskal gazteak ere. Hilabete gutxi batzuetako kontua izango zela uste zutenak tronpatuta zeuden, ordura arteko gerra odoltsuena bilakatuko baitzen, 60 milioi pertsonaren mobilizazioarekin eta teknologia militar berrienarekin. Baionako Infanteriako 49. Erreximenduaren ibilerak aletuz, krudelkeria neurririk gabeko haren kontakizun gordina dakar Mikel Peruarena Ansaren bigarren nobelak.

BERRIZ

ENPRESA TOLOSAN

hartu erreleboa

Pertsona ekintzailea zara eta Tolosan martxan dagoen negozio bat hartu nahi duzu?

Tolosako merkataritza eta ostalaritzaren jarraipena bermatzeko, Tolosako Udalak laguntza ekonomikoak emango ditu: 6 hilabete arteko lan-kontratazioa ordaintzeko, bideragarritasun plana gauzatzea, lokala alokatu/erosteko eta 10.000€ arte moldaketetarako.

Informazio gehiago eta parte hartzeko
merkataritza@tolosa.eus | 943697454 | www.berrizenpresa.com

TOLOSAKO UDALA

Udalak

EUROPA



KIROL ALBISTEAK

Hilabete erabakiorra Euskalduna taldearentzat

Euskalduna lehen postuan da Preferente mailan, azken neurketan lidertzan zegoen Orio taldeari 2-0 irabazi eta gero. Bost partida besterik ez dira geratzen, eta urdinek mailaz igotzeko txartela ematen

duen lehen postuari eutsiko dioten itzaropena daukate. Horixe adierazi dio Aiurriri Oriokoren aurkako partida garrantzitsuan goleatzailea izan zen Julen Barandiaranek.

Garaipenaren bi golak sartuta, jokalaria gisa bizi izan duzun partidarik gogoangarriena dela esan al daiteke?

Julen Barandiaran: Baietz esango nuke. Hala ere, ez zait burutik kentzen iaz Hernanin jokatu genuen partida hura. Irabazi beharra geneukan bigarren postua eskuratu eta promozioa jokatzeko, baina berdin besterik ezin izan genuen egin. Triste-triste itzuli ginen etxera... Bestelako sentimenduak bizitzea tokatuko al zaigu aurtengoan!

Erraz sartzen al dituzu golak?

J.B.: Ez pentsa, bost besterik ez ditut sartu denboraldi osoan; zenbaki polita izan daiteke erdilari batentzat, baina ez harrotzeko modukoa. Egun hartakoa, egia esanda, txiripa kontua izan zen: une eta toki egokian gertatzea! Bitan baloia hanketara etorri zitzaidan eta sareetara bidaltzea beste lanik ez nuen eduki. Nire kasuan, normalagoa izaten da sareetara ez baik eta kanpora botatzea baloia.

Esan behar da taldea nahiko orekatua dela golen atalean. 17koa daukan Cristian Gujjarro kenduta, gainerakoak 5-6ko kopuruarekin gabiltza.

Nola ikusten duzu bost partidako azken txanpa hori?

J.B.: Indartsu ikusten dut taldea, konfiantza handia dauka bere buruarengan. Bi etxean ditugu (Hernani, Mariño) eta beste hiru kanpoan (Trintxerpe, Hondarribi eta Pasaia). Begiratu batean Oriokok aurkari gogorrak dauzka, baina hobe izango dugu kalkulu gehiegi egiten ez ibiltzea, sailkapenean atzean dabiltzanek ere mailari gozoz eutsiko diote eta.

Ubitarteko harmailak zaletuz gainezka ikusi ziren Orioko taldearen aurkako neurketan...



Julen Barandiaran Euskaldunako jokalaria.

“Zelaian uste daitekeena baino gehiago eskertzen ditugu zaletuen animozko oihuak”

J.B.: Asko zegoen jokoan, eta Oriotik bi autobus etorri ziren... Hala ere, aitortu behar da Andoingo zaletuak oso zintzo jokatzeko ari direla. Iazko denboraldian ederki animatu gintuzten, eta aurtengoan ere eskertzekoa da beren jarrera. Andoingo zaletuak gurekin gozatzen ari direla iruditzen zait, eta gertatzen diren bost partidatan haiei hutsik ez egitea espero dut. Bost hitzorduetara gu animatzera etortzera eskatuko nieke. Zelaian ari garenean uste daitekeena baino gehiago eskertzen ditugu haien animozko oihuak.

Herrian sumatzen ari al zara zuen aldeko girorik?

J.B.: Harrigarria da herrian gure inguruan sortu den ikusmina. Zenbaitek kalean geratu egiten naute animoak emateko; buruz dakizkitez taldeari buruzko hainbat datu!

Denboraldiaren amaieran, zer dauka garrantzi gehiago, alde fisikoak ala psikologikoak?

J.B.: Biak esango nuke. Fisikoki ondo ikusten dut taldea, nahiko sendo iristen gara partidako azken minutuetara. Psikologikoki, berriz, entrenatzaileak (Iñigo Gurrutxaga eta Asier Lopez) etengabe ari zaizkigu adierazten burua hotz eduki behar dugula, pazientziak jokatu behar dugula.

Oso giro jatorra bizi dugu taldean. Herrikoak gara gehienak, gutako asko txiki-txikitatik elkarrekin jokatzeko aritu garenak... Sekula ez dut sumatu liskarrik edo keinu itsusirik geure artean. Partida bat jokatu ostean, koadrila baten moduan gustura asko joaten gara parranda txikia egitera. Oriokoren aurkako partidaren ostean, esaterako, Euskaldunako zuzendaritzarekin herriko sagardotegi batera joan ginen, eta zoragarri pasa genuen.

Zer moduz bi entrenatzaileekin?

J.B.: Primeran. Aurtun sartu dira Euskalduna taldeko egitura

“Oso giro jatorra bizi dugu taldean. Herrikoak gara gehienak, gutako asko txiki-txikitatik elkarrekin jokatzeko aritu garenak”

eta egia esanda, ezin egokiago moldatu dira. Are gehiago, jokalarien plantila osatu ostean etorri direla jakinda. Guri aguantatzen ere meritu handia dute!

Nola definituko zenuke taldea?

J.B.: Oso gaztea da, bataz beste 23-24 urtekoa. Gaztea, baina sendoa. Teknikoki baten bat nabarmendu daiteke, baina gainerakoek gabezia hori zelaian jartzen dugun gogo eta indarrarekin estaltzen dugu. Altueraz, nahiko txikia gara erditik aurrera; atzelariak, ordea ez; nekez iristen dira gure ateko sareetara goitik datozen baloiak. Aulkia daukagu ona, eta horri esker, nahiz eta aldaketak egin taldea beti antzeko maila emateko gai da.

Eta zeure burua?

J.B.: Zaila jarri didazu lana... Baloia hanketan, defendatu baino ez naiz egiten. Ezer nabarmenezkotan, zelaian jartzen dudana kemena eta motibazioa aipatuko nituzke. Erasoako mentalitatea daukat defentsarako baino gehiago, eta zenbaitean, atzelarien partetik errietak jasan behar izaten ditut.

Zure aita oso jokalaria ona izan zen bere garaian. Izango da harekin konparatzen zaituenik...

J.B.: Bai, helduek batez ere gogoratzen didate nola jokatu zuen Michelinen goiko mailatan eta zeinen ona zen. Bera da zirikatzaileena, hala ere: ni baino azkarragoa eta teknikoagoa zela esaten dit. Lastima orduan ez egotea bidez gra-

AZKEN TXANPA

ERREGIONAL PREFERENTE LIGA, 1. MULTZOA. EMAITZAK:

25. jardunaldia

Deusto 1-2 Urnieta
Euskalduna 2-0 Orioko

SAILKAPENA:

1. Euskalduna	58
2. Orioko	58
3. Baskonia	50
4. Urnieta	48
5. Allerru	44

DATOZEN JARDUNALDIAK:

26. jardunaldia

Apirilak 19-20:
Urnieta-Munibe
Trintxerpe-Euskalduna

27. jardunaldia

Apirilak 26-27:
Baskonia-Urnieta
Euskalduna-Hernani

28. jardunaldia

Maiatzak 2-3:
Urnieta-Lengokoak
Hondarribi-Euskalduna

29. jardunaldia

Maiatzak 9-10:
Urnieta-Allerru
Euskalduna-Mariño

30. jardunaldia

Maiatzak 16-17:
Orioko-Urnieta
Pasaia-Euskalduna

batzeko joerarik, orain egiten den bezala!

Noraino iritsi nahiko zenuke futboleant?

J.B.: Txikitan, beti edukitzen dituzu ametsak! Infantiletan-eta gu ikustera ikuskatzaile bat etorri zela esaten zigutenean puztu eta guzti egiten ginen. Baina pasa ziren garai haiek! Gaur egun, 22 urte ditut, lantoki batean lan egiten dut, eta nire aspiraziorik handiena entrenamenduetan eta partidetan gozatzea da, eta horrekin batera, Euskaldunari ahalik eta mailarik gorenena igo dadin laguntzea.



KIROL ALBISTEAK

Zumba erakustaldia igande honetan Urnietan

Zumba praktikatu eta, aldi berean, gaixotasun arraroak dituztenei laguntza emateko aukera izango da igande honetan Urnietan. Pausoka elkarteak antolatu du ekimena eta igande goizean zehar dantza eginez arituko dira herritarrak bertako polikiroldegian.

Pausoka elkarte duela hiru urte jarri zen martxan eta 12 familia hasi baziren ere, egun 60 izatera iritsi dira. Gaixotasun arraroak dituzten haurrei erantzuna ematen saiatzen dira terapien bidez eta bertako kide den Maria Lesakak dioenez, Hernaniko egoitza txiki geratzen ari zaie. Leku handiago baten premia dute; horregatik, hamaika ekintza antolatu dabilta.

Horietako bat da Zumba maratokia. "Maratoi hau herritarrak gure egoeraz jabetzeko eta sensibilizatzeko egiten da. Gainera, honelako ekimenekin gure egoera berean dauden familietara iristen gara", azal-



tzen du. Leku handiago bat izan eta terapiak guztiz dohai-nekoak izan daitezen nahi dute, baina horretarako ezinbestekoa dute gainontzekoen laguntza. "Urnietarrak animatu nahi ditugu gurekin Zumba egitera, oso ondo pasako dute", dio.

Virginia Franco eta Oliber Nestarren gidaritzapean, bi txanda izango dira. Lehena, 9:30etik 11:00etara eta biga-

rrena 12:00etatik 13:30era. Parte hartzeko 10 euro ordaintzeaz gain, izena eman behar da. Jendea animatuta dagoela dirudi, orain arte ehun eta hogeig lagun inguruk eman baitute izena. Tartean, haurren doako txanda ere izango da, 11:15etik 11:45era.

Izena emateko:
herrikrossa.com
637463320 (Adriana)

Esnal eta Ibarburu igerilariak estatu mailako txapelketan

Estatu mailako open txapelketan parte hartzen aritu ziren Buruntzaldea IKT taldeko Mikel Esnal eta Iñigo Ibarburu. Martxoaren 28tik 31era bitartean Malagan dominak jokoan izan ziren. Bi kideek emaitza onak eta ez horren onak lortu zituzten. Mikel Esnalek 50 libre proban parte hartu zuen.

Mikelek ez zuen bere egunik onena izan eta ezin izan zuen bere marka hobetu. Taldetik adierazi dutenez, Esnalek horrelako txapelketetan oraindik ere eskarmentu gehiago behar du, "lehiatzeko garaian lasaitasuna edukitzeko. Inoiz baino forma hobean egon den arren, horrelako proba labur batean dena on-

do egin beharra dago". Malagatik sentsazio gazi gozoa ekarri dute emaitzen aldetik, nahiz eta lana ondo izanaren konfidantza izan. Neguko azken lehiaketa honen ondoren atsedendaldi bat izan dute bi igerilariak eta talde osoarekin batera Benidormera egindako bidaiaren ondoren berriro ere lanean hasi behar dute.

Andoaingo txirrindulari eskolako jubenilak

Elgoibar, jubenilak. Apirilak 12

Sailkapena:

1. Jokin Aranburu (Zarautztarra)
2. Aratz Olaizola (Zarautztarra)
3. Gontzal Garcia (Beste Alde)
9. Koldo Velasco (Andoaingo)
44. Imanol Martinez (Andoaingo)
75. Adrian Alamo (Andoaingo)
76. Alexey Fursenko (Andoaingo)



Leizaran taldeak mailari eutsi dio, Urnietak ez

Eskubaloia. Emaitzak:

Egia 20- 32 Urnieta Balerdi
Urola 27-28 Leizaran

Lurraldeko 1. maila. Sailkapena:

	P	Gol+	Gol-
8. Leizaran	16	502	564
9. Urola	15	504	519
10. Urnieta	15	506	539
11. Egia	4	407	637



Zumeatarrako kideak duatloian taldekako lehia



Martxoaren amaieran Zumeatarrako kideak Aviles aldean ibili ziren. Argazkikoak duatloian taldeka parte hartu zuen

taldea. Korrika 5 kilometro egin zituzten, bizikleta gainean 20 eta korrika beste 2,5 "Sprint" izeneko jardueran.

Gazteleku-Urnieta pilotan

Udaberri txapelketan, lau eta erdikoan Andoain eta Urnieta aurrez aurre arituko dira:

Andoain-Urnieta Senior maila 16:00. Andoain. Apirilak 18, larunbata.

MAÑERU BIZIGUNEA

2 EDO 3 GELAKO ETXEBIZITZAK GARAJEAREKIN

DUPLEXAK
PLANTA BAXUAK
TERRAZA ZORAGARRIEKIN
BISTA EZINHOBEAK
MATERIAL BIKAINAK

GARAJE BIKOITZ ETA BANAKOAK TRASTELEKUEKIN

HURRENGO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA

URNIETAN BIZITZEKO ERA BERRI BAT

KALITATE EZINHOBEA PREZIO ONENEAN

2 EDO 3 GELAKO ETXEBIZITZAK GARAJEAREKIN

190.000€-tik hasita

ZATOZ ETA INFORMA ZAITEZ!

606 957 532

www.altunayuria.com
www.inmoloiola.com

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 10ETIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ “Pride”.

Larunbata, 18: 19:30, 22:00.
Igandea, 19: 19:30.
Astelehena, 20: 19:30, 22:00.
■ Haurrentzat:
“La cenicienta”.
Apirilak 18 eta 19. 17:00.

Urniet

■ “Fuerza mayor”.

Apirilak 17, ostirala. 22:00.
Apirilak 19, igandea. 18:30.

Aurkezpena

Andoain

■ “Jaxinto ikastolen lemazain” liburuaren aurkezpena, Hiazinto Fernandorenari buruz. Apirilak 21, asteartea. 17:30. Martin Ugalde parkea.

Dantza

Andoain, Bastero

■ “Bost, Urban dance show”, Errusiako eta Euskadiko dantzarien ikuskizuna. 21:30. Auditorioa. 10 euro. Apirilak 24, ostirala.

Antzerkia

Andoain, Bastero

■ “Maitasunaren ostein maitasuna”: Ane Gabarain, Sara Cozar. 21:30. Auditorioa. 12 euro. Apirilak 17, ostera.

Musika

Andoain

■ Frenetik eta Klean musika taldeen disko berrien aurkezpen kontzertuak. 22:30. Gaztetxea. Apirilak 18, larunbata.
■ Mikel Urdangarin Castro biolin-errezitaldia. 20:00. Bastero. Apirilak 24, ostirala.

Urniet, Sarobe

■ Tiktara taldea zuzenean, CD berriaren aurkezpena. Apirilak 26, igandea. 20:00.

Hitzaldia

Andoain, Irunberri

■ “Zer gertatzen ari da Ukrainian?” EH-Donbass Elkartasun Komiteko kide baten eta gatazka lehen eskutik ezagutzen duen errusiar baten eskutik. Apirilak 17, ostirala. 18:30.

Erakusketak

Andoain, Bastero

■ **San Kristobal gotorlekua:** Iruñean, 36ko Gerran, preso asko egon zen bertan. Irekiera ekitaldia: Apirilak 22, asteazkena.

Urniet, Lekaio

■ Hernaniko Foto forumaren argazki erakusketa. Apirilak 22-30.

Deialdiak

Andoain

■ Berdintasun plana zehazteko bilera irekia. 18:30. Anbrosia Olabide. Apirilak 16, osteguna.
■ 36ko Gerran fusilatutakoei eta errepresioa jasandakoei omenaldi ekitaldia, “Oroituz Andoainen” elkartearen eskutik. 12:00. Alfaro parkea. Apirilak 18, larunbata.

Jaiak

Andoain

■ **Koadrilen eguna** Andoainen, txartelak erosteko epea zabalik: Txindoki, Xaxi, Irunberri, Txitibar. Azken eguna: Apirilak 19.

Astea

Andoain

■ “Stop desahucios” elkartearen eskutik, jarduerak aste osoan zehar: “Andoingo ekimenaren historia”. 19:00. Urigain. Apirilak 16, osteguna. “Udal politika: mahai-ingurua”. 19:00. Urigain. Apirilak 17, ostirala. “Martxa zaratzatsua eta bilkura”. 11:30. Makaldegia. Apirilak 18, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Malen gure etxeko dantzari eta musikazale politenak, 8 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Ondo ondo pasa zure egunean! Muxu handi bat, etxekoan partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Apirilaren 21ean 3 urte pottolo beteko ditu **Unax** Gonzalez Gurrutxagak. Zorionak morrosko! Muxu handia etxekoan partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Apirilaren 18an **Xabat** Miner Iratzuk 10 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat gure etxeko pilotariari!

ADUNA ANDOAIN

ZORIONAK



Mila kilo zorion, dizugu eskaintzen, beste urte berri bat dizulako hasten... 3 muxu pottolo **Xuhar**, pottotto! Etxekoak

ANDOAIN

ZORIONAK



Ospakizunez beterik dugu apirila! 4an **aitatzok**, 19an **Oierrek** eta 30ean oso-ba **Asierrek** urteak betetzen dituzte. Zorionak hirukote! Bazkari on batekin ospatuko dugu. Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

ONGI ETORRIA



Gure artera etorri berri da **Inge Gonzalez** Gurrutxaga. Zorionak familia osoari.

ANDOAIN

MERKATU TXIKIA

• Pertsona bat behar da ume bat goizetan eskolara eramateko, Andoainen. Interesatuak 13:00etik aurrera deitu: 647 93 62 02.

Andoaindarrak 400 asteburuko ekitaldiak

BERTSO AFARIA

APIRILAK 18, LARUNBATA

Zizurkil: Unai Mendizabal, Joseba Otaegi.
Andoain: Jon Eskudero, Ion Beloki.
Amas: Oihana Iguaran, Beñat Iguaran.
Gai-jartzaile: Amaia Agirre.
Basteroko ekitaldi aretoa. 20:30.

MENDI IRTEERA

APIRILAK 19, IGANDEA

Karobi, dolmen, telegrafo eta karlisten garaiko gotorlekuei bisitaldia Burdinako kideen eskutik.
Ibilaldiak 2-3 ordu inguruko iraupena izango du.
Irteera: 09:30ean Euskalduna mendigoizale elkartetik (Nagusia, 31).

Gipuzkoako
Partaidetzako
Aurrekontuak

2 MILIOI euro
BURUNTZALDEA hobetzeko

Egin zure proposamena www.aurrekontuahobetzen.eus
webgunean eta parte hartu zure herriko tailerrean:

• URNIETA. Apirilak 20, astelehena, 19:00etan, **Lekaio Kultur Etxea**

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

Gipuzkoa
BERRIA

